

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 213. alea - 2016ko abendua



**Badatoz gugana  
urtero bezala...  
eguberri on!**



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



English Academy  
**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba  
[rhorton4@yahoo.es](mailto:rhorton4@yahoo.es)

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPIZKOA) Fax: 943 192 482



etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
[www.atari.deba.com](http://www.atari.deba.com)

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29




ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatzia**

943 191 383  
[berriketan@zuhatzia.com](mailto:berriketan@zuhatzia.com)




**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA




**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**Seven Clovers**  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa  
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# AURKIBIDEA

## 07

### ABENDUAK 3

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimenak, iruditan



## 08

### ERREPORTAJEA

Deba-Kuba arteko historiaren oroipena



## 11

### TENE MUJIKA BEKA

Debako zentral nuklearraren kontrako mugimendu herritarraren historia



## 13

### ANIMADEBA

Abenduaren 26an abiatuko da Debako IX. animazio zinemaldia



## 14

### B. GAZTEA

Badatoz gabonak, Josu Salegi eta Joseba Sanchez kirolariei elkarrizketa, inkesta...



### BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonia: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

### ARGITARATZAILEA



### LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak

### Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbiet, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Ander Salegi

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83


**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

**Inprimategia:** Euskalinpuri **Tirada:** 1.400 ale

**Lege gordailua:** SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunirik. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide



## Ohore, Garbiñe

*Hamalau lerro ez da nahikoa  
egiteko aipamena,  
ezinezkoa laburbiltzea  
ta esatea den dena,  
lanari gogoz ekin zenion  
hain zinen maratz, gardena  
etxea zainduz, gogoz bultzatuz  
euskararen hedapena;  
ama, emazte maitekor, alai,  
etxekoen gozamina,  
mendizalea, guztion lagun  
eskuzabala, zuzena,  
AGUR GARBIÑE gordeko dugu  
zure lanen oroimena.*

*\*Doinua: Lurrarenpean sar nindaiteke  
Donostia (2016-XI-18)*

*Maribel eta Trumoi*

## Balla Mbengue

Senegalekoa izan arren, Balla Mbenguek urte dezente zeramatzen gure artean, Deban, eta merkatuetan egiten zuen lan. Azken urte hauetan hiru semeekin bizi zen gure artean.

Azaroaren 29an jakin nuen Balla hil zela. Bere seme zaharrenaren lagunek oroitzapen batzuk jarri zituzten kalean, esanez familiak gorpua Senegalera eraman nahi zuela, baina horrek diru asko suposatzen zuela.

Horregatik jarri zuten kontu korrante baten zenbakia, herritarrei diru-laguntza eskatuz.

Gauzak horrela, egun hartan bertan Udaleko Gizarte Batzordeko lehendakariari idatzi bat bidali nion galdetzeko

ea posible zen, herritarrekin batera, diru-laguntza ematea.

Diru-laguntzari EZETZA emanez, abenduaren 2an jaso nuen erantzuna. Arrazoiak: "Udalaren eskumenean ez dela sartzen diru-laguntza ematea kontzeptu honetan".

Harrituta geratu nintzen.

Berehala erantzun nion, **giza eskubide bat** dela esanez, Udalaren Giza Eskubideen Batzordean diru bat sobratu zela gogoratuz, eta esanez ez nuela uste Balla Senegalera eramatea baino zerbait garrantzitsuagorik edukiko zuenik Udalak.

Ez dakit zer gehiago esan... Harrituta nago!

*Marian Larrañaga*

. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko.  
mauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Justizia eta adostasuna Itziarko Auzo Udalean

Itziarko Auzo Udala eratu zenetik argitzeko geratzen zen azken oztopoa argitu da udazken honetan. Gora Deba taldeak Auzo Udalaren eraketaren aurka jarritako errekurtsioa bertan behera utzi dute epaileek, Auzo Udalaren eraketa prozesua egokia eta legezkoa izan zela argudiatuz.

Honen aurrean, Gora Deba eta Debarren Ahotsa taldeko hainbat sustatzailek eztabaida politikoari ekin diote berriro prentsan. Besteak beste, “*Aclaraciones sobre la ELM de Itziar*” izenburuko eskutitza argitaratu zuten *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian, pasa den abenduaren 5ean.

Aipaturiko eskutitz honetan, Itziarko Auzo Udala osatzeko prozesua “manipulaciones y pucherazos” betea izan zela diote. Lege espainolak erabiliz gauzatu zela, euskal autogobernua errespetatu gabe. Ondorio modura, arazo politikoak konpontzeko elkarrizketa, justizia, errespetua eta kontsentsua beharrezko direla esanez amaitzen dute eskutitza.

EH Bildun guztiz ados gaude eskutitzaren bukaeran aipaturiko ondorioekin. Zer dira ordea elkarrizketa, justizia, errespetua eta kontsentsua Gora Debaren ahotan? Gure iritziz, hurrengo egunean, abenduaren 6an, Mariano Rajoyk Madrilen egindako adierazpenen soinu bera dute; “Prest nago Konstituzioaren erreformaz hitz egiteko,

betiere marra gorri moduan jarriz Espainiaren batasuna, espainiar guztien erabakitze ahalmena eta espainiar guztien arteko berdintasuna”.

Itziarko Auzo Udala hiru urtetako elkarrizketa prozesuaren ondorio izan zen; Deba herriguneko herritarrei kalterik eragin gabe auzoetako herritarrengana administrazioa hurbiltzeko balio duen tresna da; auzoetako herritarren nahia errespetatu aurrera atera zen proiektua da; eta bi galdeketetan, bat prozesuaren hasieran eta bestea amaieran, %90etik gorako babesa jaso zuen. Hemen dituzue elkarrizketa, justizia, errespetua eta kontsentsua.

2016an Debak lehen bezain herri handia (51,5 km karra-tu) izaten jarraitzen du, 5500 biztanle inguru izaten jarraitzen du eta guztien zergak jasotzeko eskumena berea du. Herriko kaleek lehen bezain “zikin” jarraitzen dute, hondartzako lehen lerro penagarria izaten jarraitzen dugu, udan aparkatzeko arazok bere horretan dira, etab.

2016an Gora Deba/Debarren Ahotsa da Debako udalaren gobernu ardua duena. Bere estrategia politiko bakarra Itziarko Auzo Udalaren inguruko eztabaida bizirik mantentzea bada, herrirako beste proiekturik ez dutelako da, ez besterik.

*EHBildu*

---

## Azaroaren 25eko ikusmira

Jadanik pasa da Azaroaren 25a, “Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna”. Bertan, hainbat ekintza antolatu ziren, urtero bezala. Eta urtero legez, baita ere, fokua gizon erasotzailearen gainean jartzen da. Ohikoa da emakume zauritu bat ikustea (fisikoki zein psikologikoki) gizon erasotzaile baten eskutik.

Baina, non dago honen guztiaren oinarria? Indarkeriaz mintzatzen garenean, indarkeria zuzenean pentsatzen dugu. Baina askotan kontuan hartzen ez duguna beste indarkeria batzuen eragina da. Hau da, indarkeria mota asko eta anitzak daude eta hau ez dugu kontuan hartzen. Haien artean: fisikoa, hitzezkoa, psikologikoa, sexuala, familiarra, laborala, ekonomikoa, instituzionala, patrimoniala, komunitarioa, arrazista, klasista, homo-lesbo-transfobikoa eta politikoa ikus ditzakegu. Hauek guztiak sortu eta sostengatzen ditue-

na hetero-patriarkatua da; dominaziozko sistema edo modelo sozial eta kultural bat da, non gizonezkoak emakumearengan daukan dominazio rola justifikatua dagoen. Berez, kapitalismoaren aurretik sortutako sistema da, eta hauen bien arteko elkar elikatzeak sostengatzen du sistema honen legitimazioa. Honen pilareak familia, bikote heterosexuala (haien seme-alabekin) eta gizon eta emakumeen rolekiko legitimazio soziala eta rol banaketa dira.

Hau guztia esanda, Debako Talde Feministak hetero-patriarkatuaren abolizioa sostengatzen du, honek dakarren indarkeria mota guztiekin batera. Indarkeria mota hauek egunero jasaten ditugu emakume sentitzen garenok eta ez soilik egun konkretu batean.

**GORA BORROKA FEMINISTA!**

*Debako Talde Feminista*



## IDOIA GEREÑU

### Zein sinplea den lainoei begira egotea

Zein sinplea den lainoei begira egotea. Lainoei begira jarri eta denborari bere bidea egiten uztea. Hura baino gauza arruntagorik... Baina, masa fantasiazko, euritsu zein zuri mamutiarrak airean nola igarotzen diren zelatan aritzea bezalakorik...

Zein sinplea den lainoei begira jarri eta isiltasun naturalean norbanakoon arnas hotsari, existitzen delakoan, toki egitea. Naturaz gaindiko hatsaren erritmoan, bihotzeko taupadak pausatzen sentitzea. Zein sinplea den leiho edo balkoitik kanpora so egin eta lainoei begira egotea Euskal Herrian, edertasun estetikorik nonbait bada. Aspertzen ez duen edertasun estetikoa. Hilerokorik gabeko egunetan, lainoen usainaz gozatzeko adina edertasun enpirikoa.

Lainoek sukarra ere eragin ohi digute batzuei noiz edo noiz, ordea. Hausnarketa menderakaitzeara ere bideratzen gaituzte batzuetan. Lainoek, eurek nahita edo nahi gabe -hori izaki ahalguztidunei galdetu beharko genieke-, buru arin edo ameslariak dantzan jarri eta pentsamenduen ganbara kilimatzen digute. Begira egotearen

gozamen sinpletik, bidaiarik sakon, aberats zein mingarrietara garamatzate. Hain baita sinplea lainoei begira jarri eta kontzientziarekin hizketan hasia. Garenaz, izango garenaz eta izan nahi dugunaz paradigmatikoki jolastea. Gizakion ongi izatearekin ames-tea. Gizarte justu bat irudikatu nahi izatea. Hain baita sinplea, norbere poltsikotik harata-go, begi guztiek zeru berari begiratzen diogula ulertzea.

Horretxegatik, sinpletasun horixe bera eskatu nahi diot aurretik Olentzerori. Baita Mari Domingiri ere, badaezpada. Lainoei begira egotearen sinpletasuna eta horrek ekar ditzakeen osasuna, askatasuna eta bakea. Lainoen freskotasuna arnastearen sinpletasuna GuraSOSen haurrak izango garen guztiontzat. Zeru laino-gorriei begiratzearen askatasuna KALERA-KALERA oihi ozonen-tzat. Bakea, laino ilundun giza esku-bide aldarrikapen ororentzat.

Zein erraza eta ederra litzatekeen guztiok lainoei begira egon ahal izatea, handimandi gutxi batzuk zera euren ez dela konturatuko balira. Hain baita sinplea lainoei begira egotea...





euskaraz  
bizi  
nahi dut



EUSKARAK  
365  
EGUN  
euskaltzaileen auzotik  
euskararen herrira



# Deba-Kuba arteko historiaren oroipena



1959-1960an Kuban ateratako irudia, Antton Albizu tartean dela.

Ez dakit zenbatekoa izan den Deba eta Kubaren arteko harremana; baina, bai han ibiliak garela irlaren bi une historikotan gutxienez. Lehenbizi, XIX. mendean Lersundi jeneralaren bidez; bigarrenez, XX. mendean hiru frantziskotarren bidez.

**Francisco Lersundi Hormaechea** (Valentzia, 1817-Baiona, 1874), gure lehengo Kale Nagusiari oraingo izena eman ziona, **Kubako kapitain jenerala** izan zen. Haren familia debarra zen jatorriz eta hemen bizi izan zen haurtzaroan. 1833an lehen karlista gerra hasi eta Gipuzkoako Aldundiak antolatutako *txapelgorrien* batailo batean sartu zenean Bergarako Seminarioan ari zen ikasle. Lehen karlista gerra hartan behin baino gehiagotan izan zen zauritua eta teniente koronel kargua lortu zuen. 1851n gerra ministro izendatu zuten Madrilen, eta 1866an Kubako kapitain jeneral.

Lersundik krisian aurkitu zuen Kubako gizartea, eta, erreformista eta negoziatzaileagoak ziren bere aurrekoena ez bezala, erabat atzerakoa izan zen honen politika, erreformisten bilgune guztiak itxi zituelarik. Hara heldu eta bost hilabetera kargugabetu egin zuten bere jarduera txarragatik; baina, Madrillgo agintari arteko borrokak zirela medio, berriro ere Kubara itzuli zen kapitain jeneral karguarekin.

Lersundi ez zen gauza izan independentista eta antiesklabista kubatarren borroka-indarra antzemateko, eta, 1868an altxamendua piztu zenean, berehala baretuko zen jaikiardia zela uste izan zuen. Altxamendua 1868ko urriaren 10ean hasi zen, Yara Garrasiaren hotsera, Kubako matxinoak Carlos Manuel Cespedes-en agindura Bayamo hiria hartu zutenean. Hiri hau gobernu iraultzailearen hiriburu bilakatu zenean, esklaboak askatu, Kubako askatasunaren ejertzittoa eraiki eta, urriaren 20an, Kubako ereserki nazionala kantatu zuten lehenbiziko aldiz.

Ejertzito espainiarrak 10.000 soldadu baino gutxiago zeuzkan eta gutxiegi izan ziren matxinadari aurre egiteko. Horregatik, bertako “boluntarioak”, bereziki jatorriz espainiarrak, mobilizatzea jo zuten, 35.000ko kopurua lortzeraino. Lersundik Valmaseda kondearen esku jarri zituen tropa espainiarrak eta honek errepresio basatia erabili zuen oposizio iraultzaile armatuaren eta liberal armagabearen aurka, edozein politika erreformistari atea itxiz.

Kubako historian Hamar Urteko Gerrate deitu izan zaion garai hau Kubako Askatasun Nazionalaren sorrerako lehen ekintza izan zen.

1869ko urtarrilaren 4an Lersundi kapitain jeneral kargua uztera behartu zuten. Historialari guztiek haren jokaera iluna eta gainera gogorra eta okerra nabarmendu zuten, esklaboen salerosketa eta independentista kubatarren errepresioa salatuz.

*Zotz* horren eta ondorengo *motzaren* artean bada zaharrei behin baino gehiagotan entzun izan diegan historia bat: Kubako gerratean oker larria egin zuen debar baten historia; betiere Hamar Urteko gerratean ala 1898koan gertatu ote zen zalantzarekin. Ziurrenik lehenbizikoan izango zen; Lersundi jeneralak aukeratu ahal izan baitzuen fusilatua edo Arnon (Mutrikun) desterratua izatea. Eta gure zaharrek barre egiten zuten, zigorrak etxera itzultzea oparitu baitzion.

“Uztailaren 26ko Mugimendua”n, bi fraide frantziskotar izan genituen borroka iraultzailean kide: **Lukax Iruretagoiena eta Antonio Albizu**, Alex Turrillasek 2015ean festetako egitarauan aipatu zituenak, hain zuzen. Lukax ejertzito errebeldean kapilau izan zen 1957an eta 1958an, Sierra Maestran, Fidel



Lukax Iruretagoiena.

Kastroren gerrilla kanpamenduko kide izanez. Antonio, Manzanilloko parrokoa, uztailaren 26ko Mugimenduko mezularientzat kontaktu-gune segurua izan zen, eta Sierra Maestra fronteko Fidel Kastroren eta lautadako errebelde babesleen koordinatzaile Celi Sanchez-en arteko bitartekaria.

Iraultzak irabazi ostean, frantziskotarren ordenak iraultzairen kontra lan egitera propio bidalita, beste fraide debar bat, Jose Luis Albizu Salegi joan zen. Hark **Vasco de Barra** izenez,

Gure Zumardiari izena eman dion Fermin Calbeton donostiarra ere Kuban ibilia zen. 1884an Matanzas (Kuba) probintziako diputatu izan zen Calbeton, eta La Habanako Unibertsitateko Ogasun Publikoa eta Zuzenbide Politiko Konparatua katedraz arduratu zen 1887ra arte.





1960ko urtarriletik maiatzera, *Quincena* aldizkarian eta *Diario de Marina*-n, Fidel Kastoren aurka argitaratutako artikuluetatik, bota egin zuten irlatik. Handik gutxira, atzerriko erlijioso guztiak bota zituzten irlatik, iraultza-aren aurka jarduteagatik. Haien guztien artean inor gutxi izan ditu Kuban ateak beti zabalik; hauek bat Lukax Iruretagoiena izan zen, Fidel Kastoren adiskide mina zelako.

#### **Heldu zen Komandantea eta geratzeko agindu zuen**

Gure kontsumo gizarte honetatik Kubari eta Fideli buruz entzuten ditugun kritikak direla eta, kubatarrek bezala erantzuten dut, hango herrialdearen alde jarritz, urrutitik eta manipulatu, Telediarriok, *Diario Vascok* edo *El País*ek emandako informazioan oinarrituz, kanpotik egindako kritiken aurrean. Gero, kubatarren artean besterik da eta, tartean arrotzik ez denean, ez da kritikarik falta.

Ez da erraza gaur egun Kuban bizitzea, baina bai dela erraza hemendik, Kubako eta Latinoamerikako historiaz hain gutxi jakinda, kritikatzeko; AEBk etxe-atzeko ataritzat baitauzka eta, hauen demokrazia eta giza eskubideen aurrerapenak eragozteko, Guatemala, Errepublika Dominikarra, Granada, Puerto Rico,... inbaditu egin ditu. Benetan esaten dizuet: Latinoamerikako eta mundu guztiko milioika pobrerentzat Jainkoaren alboan dabilela Fidel. Eurentzat nahi lukete Guatemalako, Salbadoreko, Nikaraguako, Haitiko,... arnas-bideko eta digestio gaitzez


hiltzen diren, desnutrizioa eta erabateko analabetismoa duten, behartsu eta indioekiko arrazismoa jasaten duten, gerrateak baino hildako gehiago eragiten dituen paramilitarren indarkeria pairatzen duten milioika behartsuk, euren herrietatik, bizibide hobearen bila, Europara edo AEBra ihes egiten saiatzen baitira.

Hamarkadetan zehar *Radio Habana*, askotan ezkutuka, entzun duten Latinoamerikako pobrerentzat, Jainkoaren hurrena edo Harekin batera, Fidel zegoen. Nikaraguaren erdiarentzat, ezagutu zuten lehen irakaslea edo medikua kubatarra izan zen, eta, Guatemalan milaka indio eta nekazarientzat lehenbiziko medikua kubatarra izan zen. Jainkoa eta Kuba, Jainkoa eta Fidel izan dira haien itxaropena. Kubatarren internazionalismoak ez du parekorik izan gizadiaren historian.

**Zaldia**, hala deitzen zioten Kuban, onetsiko du historiak. **AGUR ETA OHORE, FIDEL! IRABAZI ARTE!**

*Jose Luis Albizu Beristain  
eta Lukax Dorronsoro*

**Mexikoko iraultza (Emiliano Zapata, Pantxo Villa eta Lazaro Cardenasekin), eta, Kubako iraultza (Fidel Kastro eta Ernesto Gebararekin) dira aipamen berezia merezi dutenak XX. mendeko historia amerikar-reen; eta, bai bata eta bai bestea, mundu guztian dira aipagarri nekazaritzar erformei eta borroka antiinperialistei dago-kienean.**



## Egurra ta Kittok eta Huntza taldeak diskoa aurkeztu dute Durangon



Hainbat dira Durangoko Azokaren azken edizioan beren lanak erakusgai izan dituzten idazleak eta musikariak, eta azken horien artean debarrik ere izan da aurten. Adibideren bat jartzearen aipa genitzake Egurra ta Kitto taldearen eta Huntzaren disko berriak. Bi taldeak egon dira, gainera, Ahotsenean ere, zuzeneko kontzertuak eskaintzen.

**Egurra ta Kitto** talde gipuzkoarrak bere laugarren lana aurkeztu du: "Gure ordua". 11 abestiko diskoa, Eñaut Gaztañaga teknikariaren gidaritzapean grabatua. Diskotik diskora, abiadura igoz eta punk-rockera gerturatuz, baina Ska erritmoak baztertu gabe. Disko anitza da "Gure Ordua", kontraste bilduma bat: punk-rock zorrotzena, Skarik dantzagarriena, pop balada... urrun dauden erpinak bildu dituzte lan berrian. Taldea sei lagunek osatzen dute eta horien artean daude Iker Vela (ahotsa) eta Gorka Agirrezabala (tronpeta) debarrik.

Mauka disko-etxeak Durangon aurkeztu dituen nobedade-



en artean dago **Huntza** taldearen lehen diskoa ere. Uda partean Josune Arakistain taldekide lasturtarrak **Berriketan**-i eskainitako elkarriketan kontatu zuen taldea zuzeneko emanaldi gutxi batzuk eskaintzen eta lehenbiziko abesti batzuk grabatzen hasia zela. Irailean erakustaldi polita egin zuten Debako Euskal Jaian, eta azkenaldian nonahi entzuten dira Huntzaren abestiak. "Aldapan gora" kantaren bideoklipak, adibidez, 315.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu interneten hilabete gutxian eta Euskadi Gaztean ere makina bat aldiz jartzen dute.

Gerora etorri da euren lehen diskoa: "Ertzetatik". Aipatutako "Aldapan gora" abestia eta beste hamaika biltzen ditu lanak. Bertan, euskal tradizioko trikiti doinuak rock garaikideagoarekin elkartu dituzte, euskal musika ikuspuntu pertsonal batekin interpretatuz. Dantza-doinu alaiak kantu sakon pertsonalagoekin elkartuta entzuteko aukera eskaintzen du "Ertzetatik" diskoak, betiere taldearen ezaugarri den festa-giroa nagusi delarik.

## Goaz Antzerki Taldea Durangon

2016ko urriaren 29an, Silboberri Txistulari Taldeak XXII. Alardea antolatu zuen Durangon.

Aurtengo egitarauan "Gau-Illa: Alostorrea" ren kondairan oinarritutako musika entzuteko aukera izan zen.

Goaz Antzerki Taldeak, Kulunka Dantza Taldeak eta Amaia Zinkunegi narratzaileak ekitaldi honetan parte hartu genuen.

Durangon, Landako Aretoan elkartu ginen guztiok momentu hunkigarria bizitzeko aukera izan genuen.

*"Alostorrea bai, Alostorrea,  
Alostorreko zurubi luzea,  
Alostorrean nengoanean, goruetan,  
bela beltzak kua, kua, kua, kua leihoetan".*

GOAZ Antzerki Taldea



# Liburu batean jaso dute Debako zentral nuklearraren kontrako mugimendu herritarraren historia

Debako Udalak eta Elkar argitale-  
txeak antolatutako Tene Mujika bekaren  
fruitua da “Ez, ez, ez. Debako zentral  
nuklearraren kontrako mugimendu  
herritarraren historia”. Jose Mari Izaga,  
Pako Salegi eta Carmelo Urdangarin  
debarrek sortu dute liburua eta Agirre  
jauregian egin zuten aurkezpena joan  
den azaroaren 30ean.

Deban 70eko hamarkadan zentral  
nuklearra ezartzeko egin zuten saiakera  
eta haren kontrako mugimendu herrita-  
rraren inguruan dihardu liburuak. Tene  
Mujika bekaren IX. edizioan saritu  
zuten hiru egileen proiektua, 2014an,  
eta orain ikusi du argia 200dik gora  
orrialde dituen argitalpenak.

Liburuaren sinopsian kontatzen  
duten bezalaxe, “1973ko udazkenean  
jakin zen Iberduero SA enpresak  
Debako udalerrian zentral nuklear bat  
jartzeko asmoa zuela. Kostaldean jarri  
nahi zuen. Eskaera horrek harridura  
eragin zuen hasieran herritarren artean.  
Eta ondoren, berriz, egonezina.  
Herritarrak berehala antolatu ziren,  
proiektuaren ezaugarrien eta ondorioen



Ander Salegi

berri izateko. Gero, zentrala eraikitzea-  
ren aurka egin zuten. Herri osoa bildu  
zuen mugimenduak, eta inguruko  
eskualdeetara ere hedatu zen.  
Informazioa jaso eta hedatu izanari  
esker, eta beste dibulgazio jarduera  
batzuei esker, enpresak atzera egitea  
lortu zuten”...

Gertaera haiek bizi zituztenetik 40  
urte baino gehiago igaro diren honetan,  
Izagak, Salegik eta Urdangarinak  
“mugimendu hura bildu, deskribatu,

aztertu eta transmititu” nahi izan dute  
euren liburuan. “Informazioa hedatuz  
eta parte hartzeko bide baketsuak erabi-  
liz, enpresa garrantzitsu bati eta  
Estatuko Administrazioari aurre egin  
zion mugimenduak, eta helburua lortu  
zuen. Gertaera haien aktore zuzenak  
edo oso gertukoak izan ginen, eta ikusi  
edo bizi genituen moduan deskribatu  
nahi izan ditugu, gauzak gertatu ziren  
moduan gera daitezten jasota”.

Hogei euroan dago salgai liburuak.

## Luzaro aldizkaria (1967-1978) digitalizatu dute

60. eta 70. hamarkadetan, diktadura garaian Debako gazteek Gazteen Elkartea eratu zuten eta, besteak beste, “Luzaro” aldizkaria kaleratu zuten. Paperezko argitalpen horren bilduma osoa digitalizatu egin du orain Debako Udalak eta [www.deba.eus](http://www.deba.eus) atarian eskegi dute “Luzaro”.

Digitalizazio proiektua jendaurrean aurkeztu zen abenduaren hasieran, Agirre jauregian. Aldizkariaren aleak dagoeneko irakurgai daude aipatutako webgunean.



## Astearteetan eta asteazkenetan bilduko dira mintzalagunak

Hasierako izen-emate kanpaina amaituta, bi talde sortzea erabaki dute mintzalagunak. Saioak astearteetan (17:30etik 18:30era) eta asteazkenetan (16:15etik 17:15era) burutuko dira. Dena den, posible da aurrerantzean beste talderen bat sortzea ere. Beraz, oraindik ere aukera dago izena emateko eta, ikas-  
turtea aurrera joan ahala, lekua egingo zaie parte hartu nahi

duten herritar guztiei.

Lerro hauen bitartez, euskara praktikatu nahi duten herritarrei dei egiten diegu egitasmoarekin bat egin dezaten. Animatu eta hurbildu Zuhatza elkartera! Informazio gehiagorako, deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira edo pasa zuzenean euskara elkartearen bulegotik (Ifar kale 12, beheka).

## “Futbolariak eta printzesak” komedia antzertuko dute Itziarren

Itziarren Udazken Kulturalaren baitan antolatutako egitarauak aurrera jarraitzen du. Abenduaren 29an (osteguna), “Futbolariak eta printzesak” antzerki emanaldia izango da Burugorri gainean, 18:00etan.

Galder Perezek zuzenduta, Jon Zubiaga (Osoron) eta Olatz Pagalday arituko dira antzezle lanetan topiko sexistak hautsi nahi dituen komedia azkar horretan. Eidabe konpainiak bereziki umeentzako eta gaztetxoentzako sortutako lana da (7-13 urte bitartekoentzat, baina baita beste edozeinentzat ere).

Abenduaren 29an, baina goizean, haurrentzako gabon parkea ere izango da Itziarren, frontoian.


Itziarko Auzo Udalaren babesean, hainbat eragilek elkarlanean antolatutako kultur egitarau honi azaroan eman zitzaien hasiera. Urtarrilerako ere aurreikusten da ekimenik, hala nola “Euskal Balezaleen triskantza” dokumentalaren proiektzioa.



## Martin Hernandez Beitia saritu du Gipuzkoako Atletismo Federazioak

Azaroaren 8an Gipuzkoako Atletismo Federazioak ehugarren urteurrena ospatzeko egin zuen ekitaldian hainbat jarraitzaile eta kirolari bildu ziren Musikeneko zentroan. Bertan izan genuen Martin Hernandez Beitia gazte debarra ere.

Pasa zen denboraldiko (2015/16) Gipuzkoako bi marka hobetu zituen korrikalariak, 1.000 eta 600 metroan. Egindako lanagatik, bere kategorian (kadetea) Federazioak ematen dituen brontzezko bi ezkurerekin saritu dute gaztea.



## Euskal Herriko trikitilari gazteen txapela lortu dute Naiara Mantzizidorrek eta Jugatz Oleagak

Itziarko Naiara Mantzizidorrentzat eta Aizarnazabalgo Jugatz Oleagarentzat izan da Euskal Herriko trikitilari gazteen XXV. edizioko txapela. Bikoteak 68 puntu lortu zituen Zaldibarko Olazar pilotalekuan azaroaren 27an jokaturiko txapelketan. Lehia bizia izan zen bertan, gainera. Bigarren bikote sailkatua (Eneko Arbeo azpeitiarrak eta Mireia Ibabe bergararrak osatua) oso hurbil geratu zen azken sailkapenean, 67,3 punturekin.

## Repsol Gidaren errekonozimendua jaso du Urgain jatetxeak, “Eguzki” bat irabazita

Urgain jatetxeak Repsol Gidako *Eguzki* bat lortu du. Sukaldari eta jatetxe onei eskainitako prestigiozko sariak dira Repsol *eguzkiak*, Repsolek babesten dituen sukaldaritzako bikaintasunaren sinbolo.

Aurtengo abenduan 36 urte bete dira, gainera, Xabier Osak Urgain jatetxeko ateari ireki zituenetik. Ibilbide luze horretan egindako lanaren errekonozimendua jaso du, beraz, urtemugaren bueltan lortutako sari berri honekin.

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**JZENBE**


- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

## Abenduaren 26tik 29ra bitartean ospatuko da Animadeba jaialdia



**Helduentzako animaziozko zinea eta animazio esperimentalak bultzatzeko helburuarekin sortutako ekimena da Animadeba jaialdia, eta aurten IX. edizioa ospatuko da. Ekimen ezberdinak antolatuta dira egitarauaren baitan. Hitzordu gehienak Agirre jauregiko ispiluen gelan burutuko dira, baina Gaztetxera ere iritsiko da aurtengo eskaintza.**



Animadeba abenduaren 26an (astelehena) abiatuko da, iluntzeko 19:00etan. Zortzi laburmetrai proiektatuko dituzte Agirre jauregiko ispiluen gelan. **“Alike”** (2015, Bartzelona), **“Jane, Tarzan ez zen horren guay”** (2016, Euskal Herria), **“Amor de Mono”** (2015, Madril), **“Down By Love”** (2016, Espainia), **“Portrait of a wind-up maker”** (2015, Zaragoza), **“Viaje a Pies”** (2015, Bartzelona), **“Zepo”** (2015, Madril) eta **“I said I would never talk about politics”** (Aitor Oñederra debarrak 2015ean sortua eta, hainbat sari jaso ostean, 2017ko Goya sarietara egindako lehen aukeraketan ere sailkatua. Tamalez, laburmetraia ez da azkenik Goya sarietan lehia-tuko, baina Oñederraren lana ikusi ez dutenek horretarako aukera izango dute berriz ere aurtengo Animadeban).

Abenduaren 27an (asteartea) laburmetrai bat eta luzemetrai bat eskainiko dira jaialdiaren baitan. Lehenbizi, 19:00etan, Ageda Kopla Taldeak zuzen-

dutako **“Beti bezperako koplak”** laburmetraia proiektatuko da Agirre jauregian. Santa Ageda bezperako ospakizuna abiapuntuztat hartuz –non jendea eta bertsolariak etxez etxe joaten diren festa giroan, koplak kantatzen makilek ezarritako erritmoan–, Maialen Lujanbio bertsolariak genero indarkeriaren salaketa gordina egiten du. Bertsoz bertso, indarkeria matxistaren agerpen ezberdinak salatzen dira, bai eta hura gainditzeko gure ezintasuna ere.

Kopla hauek aitzaki hartuta, hoguei euskal artista gaztek sortze-lan kolektibo bat zuzendu dute animazio teknika ezberdinak erabiliz. Artista sortzaile gazteen artean dago Aitor Oñederra bera ere. Lana koordinatzen, bestalde, Bego Vicario zinemagilea aritu da.

Laburmetraia ikusi ostean, solasaldia egingo da Ageda Kopla Taldeko kideekin eta Maialen Lujanbiorekin.

Arratsaldeko hitzorduarekin ase ez direnek ganean ere izango dute zer

ikusi. 22:00etan, Gaztetxean, **“Crulic, camino al más allá”** (2014, Anca Damian) luzemetraia eskainiko dute.

Abenduaren 28an (asteazkena) bi luzemetrai ikusteko aukera izango da. Batetik, 17:00etan, haurrei zuzendutako **“Albert”** (2015, Dinamarca) filma proiektatuko dute. Bestetik, pare bat ordu beranduago, Alex Guimeráren eta Juan Pajaresen **“Un día ví 10.000 elefantes”** eskainiko da. Bi emanaldiak Agirre jauregian egingo dira.

Aurtengo Animadeba jaialdia abenduaren 29an (osteguna) amaituko da eta egun horretarako bi proiektzio eta ekitaldi bat antolatu dira. Alegia, arratsaldeko 17:00etan **“Phantom Boy”** (2015, Frantzia) film luzea eskainiko dute. 19:00etan aurtengo edizioako **gortina lehiaketari dagokion sari banaketa** ekitaldia burutuko da. Eta, bukatzeko, **“Anomalisa”** (2015, AEB) luzemetraia egongo da ikusgai.

Jaialdiaren inguruko informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).



**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ASKETA, S.L.**  
ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 27.051.049  
NIVEL 2

2016ko abendua  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua

# BERRIKETAN GAZTEA

## BADATOS GABONAK...

“Abenduan gaude eta laster iritsiko dira gabonak. Hori dela eta, hauen inguruan hausnarketa bat egingo dugu”. Hori entzuterakoan, harrituta geratu gara; eta geure buruari esan diogu gure Prentsa Tailerreko irakasleak, garai honetan, irudimen handia daukela. Zeri buruz hitz egin genezake abenduan? Erantzuna erraza da: gabonei buruz. Beraz, hemen gaude guztiok gabonetako ospakizunei buruz idazten.

Egun hauek bereziak izaten dira bakoitzarentzat, arrazoi ezberdinengatik: batzuk familiarekin egoten direlako, besteak oporretan joaten direlako, edo Jaungoikoaren Jaiotza ospatzen dutelako...

Gabonak iristean, Deban kaleak eta erakusleihoak argiz eta gabonetako apaingariz betetzen dira. Gainera, umeez oporak dituzte eta Olentzeroren eta Erege Magoen bisita izaten dute.

Guretzat egun zoriontsuak izaten dira: oporak hartu, familiarekin bildu, urte guztiko kontuak elkarri kontatu, mahai inguruan elkartu eta gozatu, egun bereziak maite dugun jendeare-



kin ospatu edo, besterik gabe, jaiegunak aprobetxatu oporretara joateko.

Baina beste batzuei gabonak ez zaizkie hainbeste gustatzen; egun hauetan ez dira zoriontsuak, familia inguruan noekin ospatu ez dutelako edo, besterik gabe, ez dutelako zer ospatu.

Horrez gain, beste hausnarketa bat ekarri nahi dugu gaur hona, hau da, egunotan bereziki nabaria den kontsumismoa. Garai hauetan urteko gasturik handienak egiteko ahitura dago: loteria eros-

teko, otordu ederrak egiteko, oporretara joateko... Olentzerori ere gutun luzeegiak idazten dizkiogu, behar ez ditugun opariak edo gauzak eskatzeko...

Horrela, Gabonen izpiritua edo izaera galdu egiten da. Ez gara konturatzen jende askok krisiarengatik ez duela ezer etxean jai hauek ospatzeko. Ondorioz, Gabonetako balioak ahaztu egiten zaizkigu. Horregatik, Olentzerori zerbait eskatzekotan, honako hau eskatuko genioke: behar dutenei laguntza eman, zoriontsuak izateko. **Zorionak eta ondo pasa dezagun egunotan, inor ahaztu gabe.**

## “El perro del hortelano” antzezlanak ikusi zuten BHIko ikasleek

Joan den azaroaren 25ean, Mendata BHIko 3. eta 4. mailako ikasle guztiek UNI Eibar-Ermuaren Eibarko egoitzako antzezlakuan “El Perro del Hortelano” izeneko antzezlanak ikusi zuten. Lope de Vega 1613 urtean idatzitako komedia klasikoak da, eta Kataluniako Transeduca enpresak antolatutako saioetako bat da.

Talde artistiko honek antzerkigintza klasikoak ikasleengan hurbiltzeko erronkari heldu dio. Testuaren eta bertan islatutako egoeren komikotasunaren aldeko apustua egin dute, antzezlanari izaera dinamiko eta dibertigarria emanez eta, aldi berean, antzezlan berritzailea eta gogoeztazkoa bilakatu.



Antzezlan hau Lope de Vegaren (1562-1635) antzerki-komedia da, eta antzerki-barrokoren parte da. Antzerkia Napoles hiriarren pizkundean kokatzen da eta hiru ekitaldiz osatua dago. Edukiari dagokionez, hiru protagonistek osatzen duten maitasun triangelu zail bat aurkezten du. Bizitzan gertatzen den bezala, Lope de Vega tragediaren komediarekin nahasten du.

Antzezlanean maitasuna iriteten da garaile.

Ikuskizuna amaitutakoan, hizketaldi bat egin zen antzezlaren eta ikasleen artean, eta bertan antzezlanean agertzen diren hainbat gai landu ziren: maitasuna, jelsokortasuna, ohera, engainua... oinarriko gaiak antzezlan honetan.



## ELKARRIZKETA

### JOSU SALEGI ETA JOSEBA SANCHEZ

#### “Gure kabuz ikasi dugu bodyboard egiten”

**Oraingo honetan, Josu Salegiri eta Joseba Sanchez egin diegu elkarrizketa, beraiek egiten duten kirola hizpide hartuta. Bodyboard kirola praktikatzen dute.**

**Noiz hasi zineten kirol hau praktikatzen?**

**Josu:** lazko uda hasieran hasi nintzen.

**Joseba:** Ni ere lazko uda hasieran.

**Zerk bultzatuta edo zergatik hasi zineten bodyboard egiten?**

**Josu:** Sentsazio ona da olatuak hartzea.

**Joseba:** Kirol polita eta dibertigarria dela ikusteak animatu ninduen.

**Zuen kabuz ikasi duzue ala norbaitek irakatsi dizue?**

**Josu:** Gure kabuz. Ez dugu laguntzarik izan orain arte.

**Joseba:** Bai, gure kabuz. Baina orain Europako hirugarren txapeldunarekin hasiko naiz entrenatzen.

**Zer nahiago duzue, Deban aritu ala kanpoan? Deban baldin bada, zer alderditan?**

**Josu:** Debakoa naizenez, nahiago dut

olatuak Deban hartu, baina normalean onak egoten ez direnez, beste herri batzuetara joaten gara. Olatuak etortzen diren tokietan ibiltzen gara.

**Joseba:** Nahiago dut olatuak beste lekuren batean hartzea: Zumaian edo Ondarrun.

**Erabiltzen duzuen materiala garestial da?**

**Josu:** Bai, garestia da baina, ondo zainduz gero, asko iraun dezake.

**Joseba:** Nahiko garestia da, bai. Oholak eta aletek, adibidez, asko balio dute. Gainera, nik ordaindu behar ditut, nire diruarekin.

**Zein da zuen markarik gogokoena?**

**Josu:** Gustuko ditut orain erabiltzen ditudanak: Quiksilver neoprenoa, Nomad ohola eta Evo aletek.

**Joseba:** Sniper gustatzen zait, oso material ona du.

**Zein da zuen bodyboardlari gustukoena?**

**Josu:** Pierre Louis Costes.

**Joseba:** Berdina, munduko txapelduna delako.

**Zein urtarotan egoten dira olaturik onenak?**

**Josu:** Neguan izaten dira olatu hobeak.

**Joseba:** Neguan, indarra dutelako eta oso handiak direlako.

**Babeslerik ba al duzue?**

**Josu:** Bai, Tails, duela gutxi hasi naiz haiekin harremanetan jartzen.

**Joseba:** Bai, Gny (Galiziakoa).

**Kirol hau egitea gomendatuko al zenioke jendeari? Zergatik?**

**Josu:** Bai, baina ez Deban, jende gehiegi elkartzen garelako. Beste alde batetik bai, ordea, horrela lehiaketa gehiago egongo liritekeelako.

**Joseba:** Bai, kirol "erradikala" delako.

## GABONAK HIZPIDE

Gabonak datozela eta, jai hauei buruzko galdeketa bat egin diegu 4. mailako ikasleei. Hona hemen gure galderak eta haiek emandako erantzunak:

- 1.- Gustuko al dituzu gabonak? Zergatik?
- 2.- Zerbait berezia egiten duzu gabonetan?
- 3.- Oporretara joaten al zara?
- 4.- Familiarekin ospatzen dituzu?
- 5.- Olentzerok ala erregeek ekartzen dizkizute opariak?
- 6.- Zer nolako opariak jasotzen dituzu?
- 7.- Pentsatu al duzu zer eskatu?
- 8.- Etxez etxe kantatzera joaten zara?



**Ane  
Ladera**

- 1.- Bai, oporrak ditugulako.
- 2.- Bai, kanpora joaten naiz.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai.
- 5.- Biek.
- 6.- Dirua.
- 7.- Bai, dirua.
- 8.- Bai.



**Nora  
Movellan**

- 1.- Bai, familiarekin egoteko.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Biek.
- 6.- Dirua.
- 7.- Ez dakit.
- 8.- Bai.



**Nerea  
Aizpurua**

- 1.- Bai, asko, giroagatik eta eguraldiagatik.
- 2.- Jan.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Biek.
- 6.- Ez dakit.
- 7.- Tronpeta.
- 8.- Bai, tronpeta jotzen.



**Alba  
Lopez**

- 1.- Bai, familiarekin elkartzen naizelako.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Olentzerotan lagun ezkutua.
- 6.- Lagun ezkutuan tokatzen zaidana.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.



**Mikel  
Albizu**

- 1.- Bai, haragia jaten dudalako.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Biek.
- 6.- PS4-ko jokoak.
- 7.- Bai.
- 8.- Bai.



**Luken  
Urkiri**

- 1.- Bai, familiarekin elkartzen naizelako.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Olentzerok.
- 6.- Dirua.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.



**Martin  
Hernandez**

- 1.- Bai, asko jaten dudalako.
- 2.- Jan.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai.
- 5.- Biek.
- 6.- Dirua eta arropa.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.




**Iñaki  
Aldazabal**

- 1.- Bai, petardoak daudelako.
- 2.- Petardoak bota.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Biek.
- 6.- Play jokoak.
- 7.- Bai.
- 8.- Bai.



# DENBORA-PASAK

## LABIRINTOA



## HIZKI-ZOPA

**Animaliak**

R	A	A	V	A	K	A	J	P	G	ahuntza
F	I	K	P	M	E	E	A	F	K	akerra
X	G	E	A	R	T	D	L	A	A	arma
T	R	R	I	A	V	R	I	R	Z	armiarma
X	A	R	D	I	S	U	D	R	T	behorra
A	T	R	L	M	T	Z	N	O	N	ipurtargia
H	R	A	A	R	X	I	A	H	U	izurdea
A	U	T	Z	A	I	Y	G	E	H	sugandila
L	P	M	S	F	T	O	U	B	A	txahala
A	I	A	K	K	A	K	S	E	J	txita
										zaldia

## ASMAKIZUNAK

\*Tramankulu honek alaitzen ditu tristeak, etengabe emanaz musika eta albisteak. Zer da?

\*Fruta gozo-gozoa naiz txiki-txikia eta gorria, pilotik bat hartu, eta denek irten nahi. Zer naiz?

## TXISTEA



-Ama, badakizu? Nire idazlanak zeharo hunkitu du andereñoa.  
-Benetan diozu?  
-Bai horixe, negargarria dela eta pena ematen duela esan dit.

ASMAKIZUNEN ERANTZUNAK:

-Gerezia

-Irratia

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2016-2017

Urko Azkoitia  
Maria Perez  
Maite Ramos  
Nerea Sanz  
Intza Sudupe  
Eneko Arriola

Jone Gomez  
Janire Lopetegi  
Eider Perez  
Irene Ruiz  
Maider Almortza  
Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

# AGENDA

## ABENDUAK 24, LARUNBATA

-12:30. **Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria**, plaza zaharrea. Ondoren, salda eta ogitarteko postua egongo da Foruen plazan.

-16:30. **Presoen aldeko Olentzeroa** (plaza zaharretik irtengo da). 19:30ean, kantari arituko dira plaza zaharrea eta "Kalera Kalera" abestuz agurtuko dute Olentzero.

## ABENDUAK 26-29

-**Debako IX. Animazio Zinemaldia**. Animadeba 2016. Informazio gehiago ale honetako 13. orrialdean.

## ABENDUAK 29, OSTEGUNA

-10:30. **Umeen gabonetako parkea** (PINa). Itziarko frontoian.

-18:00. "**Futbolariak eta printzesak antzezlan**a, Burugorri gainean. Itziarko Auzo Udalaren ekimenez antolatuta, Lizarbe Guraso Elkartean laguntzaz.

## ABENDUAK 31, LARUNBATA

-11:00-13:00. **VIII. San Silbestrea**, lasterketa herrikoia. Plaza berria.

-13:30. **Debako Musika Bandaren Gabon** Zahar kontzertua, elizan.

-19:30. Euskal preso, iheslari eta deportatuen aldeko **topa**, plaza berria.

## URTARRILAK 4, ASTEAZKENA

-19:00. **Bizar Zuri**, Gurutze ermitan.

## URTARRILAK 5, OSTEGUNA

-19:00. **Errege kabalgata**, kaleetan zehar.

## URTARRILAK 1-9

-**Urteberriko Idi Probak**, Euskal Jolasen.

## URTARRILAK 7, LARUNBATA

-**Zoro Feria**. Egun osoko egitarau berezia antolatuko da (fruta eta barazki azoka, ganadu feria, dantzak, kalejirak...).

## URTARRILAK 15, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak**. Agirre jauregiko ispi-luen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan 7-12 urtekoentzat.

## URTARRILAK 20, ASTEARTEA

-**San Sebastian deunaren jaia** Elorriagan.

## URTARRILAK 22, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta: Oiz.

### Ikastaroak KZgunean

**KZguneak** goizeko ordutegia izango du urtarrilean (09:00-13:00). Hainbat ikastaro eskainiko dira: ofimatika, smartphone eta tabletak, software librea, sare sozialak... Izena emateko edo informazio gehiagorako: kontsultatu [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) ataria edo deitu 943 02 36 29 telefono zenbakira.

### Gabonetako ordutegi berezia Ostolaza Udal Liburutegian

Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du gabonetan. Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era, honako ordutegia izango du: liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara eta haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

### Ikasketa gela Kultur Elkartean

Abenduaren 26tik urtarrilaren 7a bitartean, Kultur Elkarteko liburutegia (Ostolaza kalean) ikasketa gela bezala erabiltzeko aukera egongo da. Informazio gehiagorako, deitu Kultur Elkartera (943 19 11 72).

Gure urteurrena ospatzeko oparia:  
Boleto hau ekarriz gero **10 €ko deskontua**  
eskuratuko duzu zure erosketan.  
Erosketa bakoitzeko txartel bat.



optika audio

Ostolaza, 7      San Francisco, 21  
20820 DEBA      20870 ELGOIBAR  
Tel: 943192192      Tel: 943740359



RPS: 183/12



**ZAINZAKO BOTIKA**  
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **urtarrilak 6, 7, 8, 16, 17, 18, 19.**

Burgoa Zuazo: **urtarrilak 2, 3, 4, 5, 20, 21, 22.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:  
ZALDUEGI: urtarrilak 7 eta 14

BURGOA ZUAZO: abenduak 24 eta 31

9:30 - 13:30



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Ariak: 20:00 / 23:00

**Bordatxo**  
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



**50 URTE**

**BURU - ZURI**  
Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pinxo bereziak
- Lunfak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

kutxabank  
hemen  
eta orain **k**



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

 447



**Haztik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tef.: 943 02 99 63  
e-mail: haztik@gmail.com

LENTZERIA

**Azoka**

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

 N.º 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitadeen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

RAIKETAK S.L.

**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorak: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik

**ISABEL FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behea, 20820 DEBA  
943 029 186

**MAZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Calbeton**

JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786  
Mobila: 607453357  
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOAZ  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**sasoi**

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersandi, 14  
943 19 24 42  
sasoi@hotmail.com



# BADATUZ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI EGUBERRI ON!

Abenduak 24, larunbata,  
12:30ean ongiatorria plaza zaharrean.

Ondoren, salda eta ogitarteko  
postua Foruen Plazan.

## DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da  
erraza eta leuna;  
hala eta guztiz ere, argituko da  
noizbait bere etorkizuna.  
Hizkuntza dugu herriak duen  
benetako ondasuna;  
Urte Berriak dakarkiola  
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsua  
eta urte berri on!*

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA  
Ifar Kalea, 12 – Tel.: 943 192 236  
DEBA

